

Inaziotar Bidea
Camino Ignaciano

SARRERA
INTRODUCCIÓN

Inaziotar Bidea zera da, Loiolako Ignazio zaldunak 1522. urtean bere herritik, Azpeititik (Gipuzkoa), Kataluniako Manresa hirira egindako ibilbidea. Loiolan konbertsio espirituala izan ostean ekin zion erromesaldiari eta Jerusalem hiri santura iristea zuen azken helburu.

Gaur egun, santuak berak idatzitako oharretan oinarrituta antolatu da bidea: Inazioren Loiolako (Azpeitia) jaiotetxetik abiatu eta Manresan "Cova de San Ignacio" esaten dioten kobaraino (Katalunian, Montserrateko monasteriotik gertu) iristen da. Ibilbide luze eta gogorra da; gutxi gorabehera 675 kilometro ditu eta 5 autonomia-erkidego zeharkatu behar dira 30 bat egunean.

Bidea Euskadin

Euskal lurretatik abiatzen da ibilbidea eta bi probintzia zeharkatzen ditu, hau da, Gipuzkoa eta Araba, bidean aurrera egin baino lehen. Guztira 7 etapa eta 150 kilometro dira, GR 120 ibilbidearen markekin balizatuta daude, eta esperientzia paregabea biziko dugu. Euskadiko zatia erromesbide osoko malkartsuena dela esan dezakegu, baina sei eskualde ezagutu eta zeharkatzeko parada eskaintzen digu: Urola Garaia, Urola Erdia, Debagoiena, Arabako Lautada, Arabako Mendialdea eta Arabako Errioxa.

Ibilbide oso erakargarria da Done Jakue bideak eskaintzen dituenen antzeko esperientziak bizi nahi dituztenentzat.

El Camino Ignaciano recrea el itinerario que el caballero Ignacio de Loyola recorrió en el año 1522 desde su localidad natal, Azpeitia (Gipuzkoa), hasta la ciudad catalana de Manresa. Una peregrinación que comenzó después de su conversión espiritual en Loyola, y que tenía como meta final la ciudad santa de Jerusalén.

Actualmente, el camino que se ha trazado a partir de las anotaciones personales del Santo, se inicia en la casa donde nació Ignacio en Loyola (Azpeitia) y nos conduce hasta la conocida como "Cova de San Ignacio", en Manresa (cerca del Monasterio de Montserrat, en Catalunya). Se trata de un recorrido largo y exigente, de aproximadamente 675 kilómetros, que atraviesa 5 comunidades autónomas, y que se puede realizar en unos 30 días.

El Camino a su paso por Euskadi

El itinerario se inicia en tierras vascas y atraviesa dos de sus provincias, Gipuzkoa y Álava, antes de proseguir su andadura. Un total de 7 etapas y 150 kilómetros, balizados con las marcas del GR 120, que nos separarán una experiencia única. Podemos considerar el paso por Euskadi como el más abrupto de toda la peregrinación, pero nos permitirá conocer y recorrer las seis comarcas por las que se transita; Urola Garaia, Urola Erdia, Debagoiena, Llanada Alavesa, Montaña Alavesa y Rioja Alavesa.


Una ruta realmente atractiva para aquellos peregrinos que desean buscar experiencias similares a las que ofrece el Camino de Santiago.

turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/









1 Loyola ▶ Zumarraga

17,7 Km. 269 m. 4h 10'

Ibilbide luze hau Azpeitian hasten da, euskal santuaren jaiotexearen eta Loiolako Santutegiaren monumentu multzoaren ondoan; Santutegiaren arkitektura-obra barrokoa XVII. mendetik XVIII. mendera bitarte eraiki zen, San Inazioren omenez.


Izarraitz kareharrizko mendiaren oinetik Zumarragara abiatu behar dugu, lehen etapa herri horretan amaitzen baita; horretarako, Azkoitiik igaro beharko dugu (santutegitik 3 kilometrora dago), Urola ibaiaren bideari jarraituta, eta egun Bide Berde bihurtuta dagoen Urolako tren zaharraren trenbidean aurrera egin, oinezkoentzat nahiz txirrindularientzat ezin hobeto prestatuta baitago. Zumarragan, Antioko ermita ikusteko modukoa da; izan ere, euskal erromanikoaren (XIV. mendea) erreferente izateaz gain, Hiru Tenpluen ibilbideko tenpluetako bat ere bada, Loiolako eta Arantzazuko santutegiekin batera. Barruko estalkiaren zurezko egitura ikusgarria, batik bat, nabarmentzen da. Hain ederra da, ermiten katedral ere esaten diotela.

Zumarragatik ez dago oso urrun; beraz, nahi duenak beste 5 km egin ditzake eta Legazpira iritsi.

Este largo recorrido se inicia en Azpeitia, junto a la casa natal del Santo vasco y al conjunto monumental del Santuario de Loyola, impresionante obra arquitectónica barroca construida entre los siglos XVII y XVIII en honor a San Ignacio.

A pie de la mole calcárea de Izarraitz, nuestros pasos se deben dirigir hacia la localidad de Zumarraga, final de la primera etapa, pasando antes por Azkoitia (a 3 km del Santuario), siguiendo el curso del Río Urola y por el trazado del antiguo Ferrocarril del Urola, actualmente una Vía Verde perfecta para su uso tanto para caminantes como ciclistas. En Zumarraga, La visita a la ermita de la Antigua, referente del románico vasco (S. XIV) y uno de los hitos de la Ruta de los Tres Templos junto a los Santuarios de Loyola y Arántzazu, se antoja obligada para cualquier peregrino. Destaca, sobre todo, su imponiso entramado de madera de la cubierta interior. Debido a su belleza es conocida como la catedral de las ermitas.

La distancia hasta Zumarraga es relativamente corta, lo que posibilita a todo aquél que lo desee, continuar 5 km. más para alcanzar la localidad de Legazpi.



2 Zumarraga ▶ Arantzazu

18,9 Km. 873 m. 6h 30'



Bide gogorra da etapa honetakoa; Barrendiolako urtegira iritsi ostean, Biozkorna portua igo beharko du bidegileak.

Oraingoan, trenbidea izango dugu bidelagun hasierako kilometroetan. Legazpi igarota, Mirandaola parkera iritsiko gara (Burdinolara eta ermitara bisita egitea gomendatzen dugu) eta, bertan, zutabe batean adierazita dago Telleriarteko auzora iristeko nondik jo behar dugun. Handik puska batera, berriro ere trenbidearen ondotik, Brinkolara iritsiko gara. Herria zeharkatu eta lehen aipatu dugun Barrendiola urtegira iritsiko gara. Orain bai; orain hasiko da bide gogorra.

GR 120 ibilbideko markei jarraiki Biozkorniara iritsiko gara, eta bertan eskuinerantz egingo dugu, Arantzazura bideratuz. Duruko saroian barrena jaitsiko gara (borda-ingurunea da) eta gune hori igaro ondoren ezkerreko bidea hartuko dugu, Arantzazuko Santutegira iritsi arte, GR ibilbidearen markei jarraikiz.

Nos espera una jornada exigente, que el caminante notará principalmente una vez haya alcanzado el embalse de Barrendiola y se inicie el ascenso el puerto de Biozkorna.

La etapa parte de la estación de tren de Zumarraga hasta salir de la localidad. En esta ocasión, las vías de tren serán nuestras compañeras de viaje en los primeros kilómetros. Pasado Legazpi, encontramos el parque de Mirandaola (Visita recomendada a la Ferrería y ermita), donde un poste nos indica el camino a seguir para alcanzar el barrio de Telleriarte. Al rato, y siguiendo las vías del tren, nuevamente, llegamos a Brinkola. Atravesamos la localidad para luego llegar hasta el antes mencionado embalse de Barrendiola. Es ahora donde empieza lo realmente duro de la jornada.

Seguimos las marcas del trazado del GR 120 para alcanzar Biozkorna, donde giraremos a la derecha, dirección Aránzazu. Bajamos por la majada de Duru (Zona de bordas) y tras pasar esta zona, cogemos el camino de la izquierda, hasta llegar el Santuario de Arantzazu, guiados por las marcas del GR.



3 Arantzazu ▶ Araia

15,9 Km. 656 m. 5h 50'

Arantzazuko Amaren santutegia artearen eta espiritualtasunaren gune da, eta euskal artista ezagunenek egindako arte-ondare garrantzitsua ikus dezakegu bertan: Laorga, Saenz de Oiza, Jorge Oteiza, Eduardo Chillida, Xabier Egaña, Nestor Basterretxea.

Santutegiari agur esan, eta etapa berri honek zirrara handiak biziaraziko dizkigu. Gipuzkoatik Arabara igaroko gara, eta Done Jakueren barnealdeko bidearen ibilbidea zeharka guruztzatuko dugu. Bidegurutze horretatik metro gutxira, eta gure ibilbide nagusitik askotxo urrundu gabe, San Adriango tunela ezagutzeko aukera izango dugu; harkaitza zulatuta egindako tunel hori Bronze Arotik erabili izan da, eta XIII. mendean, Gaztelako Erreinua Europarekin lotzen zuen igarobide nagusia zen.

Aizkorri Aratz parke naturalean gaude; kareharrizko harkaitza da nagusi eta bereizgarri garrantzitsuenen artean paisaia eta sortutako formak aipatuko ditugu.

Etapa jaitsiera batekin amaitzen da; Araia herrira iritsiko gara, Aratzeko haitzen azpialdean. Amarnioko San Joan ermitak (estilo erromanikoa) edo San Pedro eliza ikus daitezke, la derrigorrezkoa da, halaber, Idiazabal jatorri-deiturako gaztak dastatzea.

Nos despedimos del Santuario de Nuestra Señora de Aránzazu, centro de arte y espiritualidad imprescindible, donde podremos admirar un importante patrimonio artístico realizado por los más notables artistas vascos.

La etapa nos deparará fuertes emociones. Pasaremos de Gipúzkoa a Álava y cruzaremos transversalmente el recorrido del Camino de Santiago del interior. A pocos metros de este cruce, y sin desviarnos en exceso de nuestro recorrido principal, podremos visitar el conocido paso de San Adrián, túnel escavado en la roca, que ha sido utilizado desde la Edad de Bronce, y principal puerta de paso entre el Reino de Castilla y el resto de Europa en el siglo XIII.

Estamos en el Parque Natural de Aizkorri Aratz, el predominio de la roca caliza es muy notorio y, tanto el paisaje como las formas generadas, son algunos de sus principales rasgos.

El final de etapa es un descenso que nos acercará hasta la localidad de Araia, localizado al pie de las peñas de Aratz. Allí podremos visitar las ermitas de San Juan de Amarnio, de estilo románico, o la Iglesia de San Pedro. Casi obligado es degustar los quesos de denominación de origen Idiazabal.



4 Araia ▶ Alda

21,3 Km. 630 m. 6h 20'



Gaurko ibilbide osoa Araban egingo dugu; ez da oso gogorra, ez baitu desnibel handirik, ezta kilometro askorik ere.

Araiatik atera orduko Albenizera eta, gero, Durrumara iritsiko gara; Bordeletik Astorgarako galtzada erromatarra herri horietatik igarotzen zen eta, gaur egun, N-1 errepidea. Jarraian, Bikuñako portura hurbilduko gara eta Entziako mendilerroaren hegaletan gora doan basoaz gozatzeko aukera izango dugu. Horixe izango da eguneko maldarik handiena.

Basogune ederretik ateratakoan, ureztaketarako putzu txiki bat ikusiko dugu baina putzua eskuinaldera utzi eta Uribarri Harana herria zeharkatu behar dugu. Garaiz bagabiltza, herri horretan San Kristobal eta Andramari ermitak ikustera joan gaitezke.

Etaparen azken zatia falta zaigu, 1,5 km eskas, eguneko helmugara iristeko: Alda.

Jornada que se realiza íntegramente por la provincia de Álava, que no será excesivamente dura, ni por el desnivel ni por los kilómetros a recorrer.

Al poco de abandonar Araia llegamos a las localidades de Albéniz y posteriormente a San Román de San Millán, por las que transitaba la antigua calzada romana de Burdeos a Astorga, y que hoy en día se traza la N-1. A continuación, nos debemos aproximar al puerto de Bikuña, en donde podremos disfrutar de una masa forestal que trepa por las laderas de la Sierra de Entzia, y que será el desnivel más importante de la jornada.

Una vez abandonamos la bella zona boscosa, dejamos una pequeña balsa de regadío a nuestra derecha para atravesar la localidad de Ullibarri Arana, donde, si tenemos tiempo, podremos visitar las ermitas de San Cristóbal y Andramari.

Afrontaremos la última recta de la etapa, de apenas 1,5 km., para alcanzar nuestro objetivo del día, Alda.



5 Alda ▶ Sta. Cruz de Campezo

17,7 Km. 191 m. 4h 20'



ORBISO ALDAERA
VARIANTE POR ORBISO
13 Km. 53 m. 3h 20'

Aldan atseden hartu ostean, erromesbidean aurrera egingo dugu Arabako Mendialdea eskualdean barrena, eta Santikurutze Kanpezu herrira iritsi behar dugu. Eskualde honetan altxorrik preziatuena Izkiko parke naturala da; izan ere, Europan hobekien kontserbatuta dagoen haritz eta ametz basoa aurki dezakegu bertan. Deribora izanez gero, parkea bisitatzea ezinbestekoa da.

Etapa honetan, helmugara iristeko bi aukera ditugu: bide zuzenena Orbison barrena igarotzen da; edo helmugara itzulingurua eginez eramango gaituen beste bidea, berriz, Oteo eta Antoñana herrietatik. Antoñanan, XII. mendeko harresiak bisita daitezke, baita Vasco Navarro trena zenaren Bide Berdearen Interpretazio Zentroa ere.

Arabako Mendialdea eskualdean goi-mailako kalitateko eztia dastatzea ezinbestekoa da, usain sarkor eta fina duen boilur beltzarekin batera, eta patata, odoliki eta gazta ere ahaztu gabe.

Tras haber descansado en Alda proseguiremos la peregrinación por la comarca de Montaña Alavesa, para buscar la localidad de Santa Cruz de Campezo. Si por algo es reconocida esta comarca es por la joya verde que alberga en su interior, el Parque Natural de Izki, donde destaca el bosque de roble marojo mejor conservado de toda Europa. Su visita, si poseemos tiempo, es imprescindible.


En esta etapa podremos llegar a nuestro destino por dos variantes: una más directa que nos conduce por Orbisо, o bien la que transita por las localidades de Oteo y Antoñana, que nos lleva hasta el punto final dando un rodeo. En Antoñana podremos visitar sus murallas medievales del S.XII, y el Centro de Interpretación de la Vía Verde del Vasco Navarro.

No debemos abandonar la Comarca de Montaña Alavesa sin degustar su miel de alta calidad, o la trufa negra de perfume intenso y delicado, sin olvidarnos de su patata, morcilla y queso.



6 Sta. Cruz de Campezo ▶ Laguardia

32 Km. 690 m. 8h 30'



ELVILLAR ALDAERA
VARIANTE POR ELVILLAR
31,6 Km. 754 m. 8h 40'

Seigarren etapa honekin Inaziotar Bidearen kilometro gogorrenak atzean utziko ditugu.

Paisaia oso heterogeneoa ikusiko dugu gaurkoan. Zereal-laborantzako lurretatik abiatu eta, Tolioñoko mendilerroko baso ibia zeharkatu ondoren, Arabako Errioxako mahasti-itsasoa agertuko zaigu begien aurrean; Arabako Errioxan Laguardia da herri garrantzitsuenetako bat. Erdi Aroko herria da eta egun oinezkoentzat prestatuta dago, denda eta turismo-zerbitzu ugari eskaintzen dituela.

Tolioñoko mendilerroa (Natura 2000 Sarea) hesi naturaltzat hartzen da, zeharo desberdinak diren bi klima bereizten baititu: iparraldeko kantauriarra, euritsua; eta hegaaldeko mediterraneo-kontinentala, prezipitazio gutxikoa, mahatsa landatzeko ezin aproposagoa.

Etapa honetan Nafarroako tarte txiki bat igaroko dugu, Genevilla, Cabredo, Lapoblación eta Meano udalerriak zeharkatuz, eta berriro Araban sartuko gara Kripanen. Hemen etaparen amaierara arte Laguardiatik zuzenean joatea aukera dezakegu, edo bestela Arabako Bilarrera daraman aldaera berria erabili dezakegu, non ondare-bitxi bikainak ikusteko aukera izango duguri, adibidez Sorginaren Txabola edo El Encinal trikuharriak."

Esta sexta etapa será el adiós a los kilómetros más duros y exigentes de todo el Camino Ignaciano.

El paisaje que nos depara es muy heterogéneo. Partiremos de tierras de cultivo de cereal, atravesaremos el bosque tupido de la Sierra de Toloño, para terminar avistando un mar de viñedos en Rioja Alavesa, cuyo centro neurálgico es Laguardia, villa medieval peatonal con numerosos establecimientos y servicios turísticos.

Sierra Toloño (Red Natura 2000) es una barrera natural que determina dos climas bien diferentes, el cantábrico con lluvias habituales al norte y el mediterráneo-continental del sur con bajas precipitaciones, lo que la hace ideal para el cultivo de la uva.

En esta etapa transitaremos por un pequeño tramo navarro, atravesando las localidades de Genevilla, Cabredo, Lapoblación y Meano, para retomar tierras alavesas en Kripan. De aquí a final de etapa, podemos optar por ir directamente a Laguardia o utilizar la nueva variante a la localidad de Elvillar de Álava, donde podremos descubrir verdaderas joyas patrimoniales, como los dólmenes de La Chabola de La Hechicera o El Encinal."

7 Laguardia ▶ Navarrete

19 Km. 163 m. 5h



Azken etapa honi ekiteko, Laguardiako urmaeletarantz abiatuko gara zuzenean. 4 urmael txiki dira; gazitasun-maila handia dutenez, fauna oso berezia eta munduan oso toki gutxitan aurki daitekeen flora biltzen da bertan. Halaber, hegaztiak behatzeko paradiutzat ere jotzen da eta, horregatik, urmaelak Biotopo Babestu izendatu dira. Birding Euskadi sarean ere sartuta daude.

Etaparen hasiera-hasieratik argi ikusten da Arabako Errioxan bete-betean sartuta gaudela; izan ere, mahasti bukun-bukunak izango baititugu bidelagun egunaren lehenengo kilometroetan. Udazkenean, lurralde honetan aurki dezakegun paisaia zoragarria izaten da, mahatsondoaren hostoek hartzen duten kolore gorrixka dela-eta.

Arabako Errioxan barrena goazela, eskualdean topa ditzakegun upategietakoren batean geldialdi bat egin dezakegu, merezi du-eta. Upategietan, bertako ardo ezagunak nola egiten dituzten azalduko digute eta, noski, dastatzeko aukera ere izango dugu.

Arabako azken herria Lapuebla de Labarca izango da. Ebro ibai zabala Euskadiren eta Errioxaren arteko muga naturala da.

Hemendik aurrera, esperientzia berriak ditugu zain.

Comenzamos esta última etapa saliendo directos hacia las lagunas de Laguardia. Se trata de 4 pequeñas balsas con una alta salinidad que poseen una fauna singular y una flora valorada como rareza mundial y que supone un paraíso para el avistamiento de aves, por ello han sido declaradas Biotopo Protegido. Además, están incluidas en la red Birding Euskadi.

Desde el inicio de la etapa, se vislumbra que estamos en plena Rioja Alavesa, ya que los ordenados viñedos nos acompañarán en los primeros kilómetros de la jornada. En otoño, el paisaje que nos ofrece esta tierra es espectacular debido a los colores rojizos de la hoja de la vid.

La peregrinación por Rioja Alavesa bien merece una parada en cualquiera de las bodegas que encontraremos en la comarca. En ellas, nos podrán explicar la elaboración de los ricos y populares vinos y por supuesto nos darán la oportunidad de degustarlos.

Lapuebla de Labarca es el último pueblo alavés. El ancho río Ebro hace de frontera natural entre las comunidades de Euskadi y La Rioja.

A partir de aquí nuevas experiencias nos esperan.



Inaziotar bideak erromesaldia artearekin eta naturarekin uztartzeko aukera ematen dizu


La ruta ignaciana te permite combinar peregrinación con arte y naturaleza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURSAILAREN SAILBURUORDETZA
VICEVICONSEJERÍA DE TERRITORIO
KONTSUMO ASUNTUETARAKO SAILA
COMERCIO Y CONSUMO
#EUSKADIBERRIA
turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/
Argitaratzailea: 5.a, 2008ko maila / L.G.-L.G.G 609-2026
Edizioa: 5ª septiembre 2006 / D.L.: L.G.G 609-2026

- INAZIOTAR BIDEA *CAMINO IGNACIANO*
- PARKE NATURALAK *PARQUES NATURALES*
- PARKETXE *CASA DEL PARQUE*
- URDAIBAI BIOSFERA ERRESERBA *RESERVA DE LA BIOSFERA DE URDAIBAI*
- EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA *GEOPARQUE DE LA COSTA VASCA*
- IBILBIDEAK *PASEOS*
- BIDE BERDEAK *VÍAS VERDES*
- DONEJAKUE BIDEA *CAMINO DE SANTIAGO*
- HEGAZTIAK BEHATZEKO TOKIAK *ZONAS DE OBSERVACIÓN DE AVES*
- CENTROS **BTT** EUSKADI ZENTROAK
- **SURFING** EUSKADI
- **SENDERISMO** EUSKADI
  - **GR 38** ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA *RUTA DEL VINO Y DEL PESCADO*
  - **GR 283** IDIAZABAL GAZTAREN IBILBIDEA *RUTA DEL QUESO IDIAZABAL*







BIDEAREN GOMENDIOAK
RECOMENDACIONES DEL CAMINO

1. Euskadin barrena zure ibilbidea eta ostatuak prestatzeko, honako webgune hau kontsulta ditzakezu: www.turismoa.euskadi.eus/eu/
   Prepara tu itinerario por Euskadi y los alojamientos consultando la web www.turismo.euskadi.eus/es
2. Lor ezazu egiaztagiria Inaziotar bidearekin lotura duten erakundeetan.
   Consigue tu credencial en instituciones vinculadas al Camino Ignaciano.
3. Motxila prestatzeko garaian ez sartu zama gehiegi, eta aukeratu oinetako eroso eta egokiak.
   Prepara tu mochila evitando el sobrepeso, y escoge un calzado cómodo y adecuado.
4. Euskadi zeharkatzen duen zatian, GR 120 ibilbidearen markak dituzten zutabeekin dago seinaleztatua bidea. Jarraitu zutabeei eta ez galdu arrastoa.
   El camino, en su recorrido por Euskadi, está señalizado con postes indicativos con las marcas del GR 120. Síguelos y no te despistes.
5. Gozatu bideaz, esperientziaz, topatzen duzun jendeaz, bisitatzen duzun ondareaz, gastronomiaz, paisaiez eta abarrez. Esperientzia paregabea da; goza ezazu!
   Disfruta del Camino, la experiencia, la gente que te encuentres, el patrimonio que visites, la gastronomía, los paisajes, etc. Es una experiencia única y como tal se debe saborear.



EGIAZTAGIRIAK
CREDENCIALES

Egiaztagiriak bideko herri guztietako edozein erakundetan (udaletxean, parrokian…) edo lokaletan (dendetan, jatetxeetan, tabernetan…) zigilatzen dituzte. Erromesbidea egin izanaren ziurtagiria lortzeko, oinez egindako egun bakoitzeko zigilu bat, gutxienez, izan behar da.

Egiaztagiriak Inaziotar Bidearekin lotura duten erakundeetan jasoko dira (parrokiak, gizarte eta kultur zentroak, eskolak eta unibertsitateak…) premien arabera aldatzen joan daitezkeenak.

Erromesaren eskura dauden ziurtagiriak jasotzeko lekuak Euskadin: **Loiolako Santutegian.** Tel: 943 025 000. Ordutegia: 8:00etatik 14:00etara, 16:00etatik 19:00etara.

Egiaztagiriak erromesaldia hasi baino dezentez lehenagotik jasotzea gomendatzen da. Egiaztagiriek 0,5 €ko prezioa dute.

Las credenciales se sellan en cualquier institución (ayuntamiento, parroquia…) o local (tienda, restaurante, bar…) de la población por la que se pasa. Para certificar la peregrinación se requiere al menos un sello por día caminado.


Las credenciales se recogen en instituciones vinculadas al Camino Ignaciano (parroquias, centros sociales y culturales, escuelas y universidades…) que podrán ir variando según necesidades.

Lugar de recogida a disposición del peregrino en Euskadi:
***Santuario de Loyola**. Tel: 943 025 000. Horario: de 8 a 14h y de 16 a 19h.*

Se recomienda recoger las credenciales con cierta antelación al inicio de la peregrinación. Las credenciales tienen un precio de 0.5 €.



Ezinbesteko 10ak
Los 10 imprescindibles de Euskadi



www.euskaditurismo.eus


Asko dira Euskadi ezinbesteko jomuga bihurtzen duten arrazoiak. Berehala konturatuko zara bertako jendea eta historia ezagutzen duzunean, hiriek arnasten duten ondarea ikustean, eta, harik eta hobeto, mahai on baten inguruan iruzkintzen duzunean.

Son muchos los motivos que hacen de Euskadi un destino imprescindible. Lo vas a comprobar cuando conozcas su gente, su historia y su rico y variado patrimonio y aún mejor cuando lo comentes en torno a una buena mesa.

Turista arduratsuaren dekalogoa
Decálogo del turista responsable

1. Zerbitzu eta produktu turistikoen erabiltzaileen eskubideak ezagutu.
   Conoce tus derechos como persona usuaria de servicios y productos turísticos.
2. Sustatu tokiko garapena.
   Fomenta el desarrollo local.
3. Langileak era egokian tratatu.
   Fomenta un trato adecuado a las personas trabajadoras.
4. Errespetatu aniztasuna.
   Respeta la diversidad.
5. Gozatu tokiko kulturaz.
   Disfruta de la cultura vasca.
6. Lagundu ondarea kontserbatzen.
   Contribuye a la conservación del patrimonio.
7. Lagundu ingurumena zaintzen.
   Contribuye a la preservación ambiental.
8. Aukeratu produktu eta zerbitzu jasangarriak.
   Elige productos y servicios sostenibles.
9. Erabili garraio jasangarria.
   Utiliza el transporte sostenible.
10. Izan zaitez turista arduratsua.
    Sé un turista responsable.

INAZIOTAR BIDEA. LOIOLATIK MANRESARA
CAMINO IGNACIANO. DE LOYOLA A MANRESA



INAZIOTAR BIDEA
CAMINO IGNACIANO

DESKARGATU ETAPA BAKOITZEKO TRACKAK ETA FITXAK
DESCÁRGATE LAS FICHAS Y TRACKS DE CADA ETAPA

OINEZ A PIE

BIZIKLETAZ EN BICI

turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/